

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	PROTOTIPO MEKANIKOAK DEFINITZEA ETA EGITEA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0449		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	ekoizpen mekanikoa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Produktuen diseinua	Iraupena	230
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Produktu mekanikoen diseinuan aplikatzen diren eraikuntza-irtenbideak	Iraupena	90
	Produktu mekanikoen neurriak ezartzea eta haiek egiaztatzea eta kontrolatzea		90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0105_3ko LB1 eta LB4 lanbide-burutzapenekin: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUAK DISEINATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Prototipoen diseinuak fabrikatze- eta merkaturatze-aukeretara egokitzea.

EI1.1: Zehaztea zer teknologia eta prozesu diren egokienak, prototipoan fidagarritasuna maximoa izan dadin.

EI1.2: Prototipoak egitearen eta aldatzearen kostuak aztertzea.

EI1.3: Egiaztatu eta zehaztu prototipoaren doikuntza posibleak.

EI1.4: Prototipoaren fidagarritasuna eta funtzionalitatea zehaztea, diseinu-aldaketak proposatuz.

EI1.5: Prototipoarekin egindako probak eta lortutako emaitzak dokumentatzea.

Edukiak

1. Prototipoen diseinua

- Prototipo birtuala, 3Dko eredu matematikoko oinarritua.
- CADeko 3Dko eredu STL fitxategi bihurtzea.
- Prototipo egokiena definitzea funtzioaren arabera.
- Egin beharreko prototipo-kopurua zehaztea.
- Kostuen azterketa.
- Prototipoa egiteko dokumentu teknikoak prestatzea.

2. Prototipoak egitea

- Prototipoak egiteko moduak.
- Prototipo-motak, haien funtzioaren edo erabileraren arabera.
- Eskalazko maketak: eginkizuna eta motak.
- Benetako prototipoak eta prototipo funtzionalak.
- Estilo-prototipoak eta prototipo bisualak.
- Zuzeneko mekanizazioz egindako prototipoak.
- Erretxinak galdatuz molde zurrunean edo silikonazko moldean lortutako prototipoa
- ljezketa-moldeetan egindako prototipoa.
- Multzo mekanikoen prototipoak, zenbait elementu mihiztatuz lortuak.
- Rapi Prototyping: teknologia eta motak.
- Prototipoak fabrikatzeko erabiltzen diren makina-motak.
- Prototipoak egiteko erabiltzen diren materialak.

3. Prototipoak egiaztatzea

- Prototipoa egiaztatzea, hari doikuntzak eta birdoikuntzak egitea eta prestatzea.
- Ezaugarri teknikoak balioztatzea (propietate elastikoak, termikoak eta elektrikoak, dentsitatea eta erresistentzia...).
- Saiakuntza-motak.
- Suntsitzaileak.

- Ez-suntsitzaileak.
- Erresistentzia-, egonkortasun-, eta iraunkortasun-analisia..
- Prototipoaren analisi eta saiakuntzen dokumentazioa.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Gaindituak izan behar ditu UF0447 Produktuen diseinuan aplikatzen diren eraikuntza-irtenbideak eta UF0448 Produktu mekanikoen neurriak ezartzea eta haiek egiaztatzea eta kontrolatzea

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua.